

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GASTEIZKO UDALA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 10ean hartutako erabakiaren laburpena: 2020rako kirol diru-laguntzetarako deialdi orokorraren berriazko oinarriak onesten dituen ebazpena

BDNS (Identif.): 516247

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa diru-laguntzen datu-base nazionalen kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

2020ko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarri orokorren Eskatzaileak atalean finkatutako irizpideen ildotik, eta bertan ezarritako baldintzak betetzen dituztelarik, irabazi-asmorik gabeko kirol-entitateak nahiz beren jardunaren ezaugarriak direla eta oinarriekin bat datozen irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateak izan ahalko dira diru-laguntzen ildo honen onuradun, diruz lagun daitezkeen jarduerak antolatzen badituzte eta oinarri hauetan adierazten den moduan eta epe barruan eskatzen badute diru-laguntza.

Bigarrena. Helburua

2020. urtean Vitoria-Gasteizko udalerrian egingo diren edo herritarrek parte hartzeko izango diren jolas- eta kirol-jardueren gastuei aurre egiteko diru-laguntzak ematea du xede deialdi honek, eta, aldi berean, txapelketa federatuetan parte hartzen laguntzea, hirian kirol jarduerak sustatzeko.

Kirol-erakundeek antolatutako kirol-jarduera diruz laguntzeko beste ildo bat ezarri da herritarren artean kirol-jarduera eta ohitura osasungarriak sustatzen jarraitzeko, kirol entitateek eta Kirol Sailak partekatutako helburua baita. Etorri zaigun krisi garai honetan, mugitzeko mugak eta instalazioen itxiera direla eta hiru hilabetez kirol-jarduera sustatzea eragotzi duen alarma-egoeran, kirol entitateek kirol-jardueren sustapenari lotuta jarraitu dute. Kirol jarduerak antolatu eta gauzatzeak eskatzen dituen maila sanitarioko prebentzio-neurrietarako emango da dirulaguntza, hots, osasun- eta administrazio-agintarietara ezarritako betebeharrak betetzeko.

Hemen arautzen diren laguntzek dirulaguntza izaera dute, eta arau hauen mende daude: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua uztailaren 21eko 887/2006 ED, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza, oinarri arautzaile hauek eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 5.1 artikuluan aipatzen diren xedapenak.

Hirugarrena. Oinarriak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 10ean egindako ohiko bilkuran onartutakoak. ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kirol eta Osasun Sailaren 2020ko ekitaldiko 24.40.03.3411.48935 aurrekontu-partidari egotziko zaizkio diru-laguntzak; deialdiko diru-laguntzek guztira izango duten gehieneko zenbatekoa 385.000,00 eurokoa izango da, erabilgarri dagoen kredituaren barruan.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei egun baliadunekoa, 2020ko diru-laguntzen kirol arloko berariazko oinarriak ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 10ean

Administrazio Orokorreko teknikaria

MANUEL PÉREZ DE LAZARRAGA VILLANUEVA